

## ARRATIA-PALENQUE. ALKARTASUN ZUBIAK EREGITEN

### Los Riosko (Ekuador) misinoen eta Arratiaren arteko alkartasunean sakontzeko asmoaz antolatu dan erakusketea zabalduko da azaroaren 25ean, Igorren

*Arratia-Palenuque.* Alkartasun zubiak eregiten erakusketa ibiltaria zabalduko da Igorreko Lasarte Aretoan datorren azaroaren 25ean, barikuan, arrastiko 19:30ean. Hurrengo hilabeteetan bailarako herri ezbardinetan egongo da ikusgai. Aldi berean, inaugurazino ekitaldi horretan omenaldi hunkigarria egingo jake Los Rios(Ekuador) probintziara heldu ziran lehen misiolari arratiarrei edota euren familiei.

Arratiako Eleizeak antolatzen dauan erakusketa honen helburu nagusia zera da: Arratia eta Ekuadorreko Los Rios probintziaren artean orain dala 64 urte eregi zan alkartasun zubiak sendotzea. Kontuan hartu behar da, 1948. urtean Los Riosko misinoa zabaldu eben espedizinoko 8 misiolarietatik 3 arratiarrak zirala: Maximo Gisasola eta Eusebio Ozerinjauregi zeaniztarrak, eta Frantzisko Arraibi lemoarra.



*Umeak eskolan bazkaltzen*

Inaugurazino ekitaldian egongo dira Bitor Garaigordobil gotzaina —Los Riosera joan zan lehen taldeko partaidea— eta Jesus Ramon Martinez de Ezkeretotxa, Los Riosko azken gotzain euskalduna. Bertan izango dira Eusebio Ozerinjauregi, Maximo Gisasola eta Frantzisko Arraibiren senitartekoak —eta Arraibi bera osasunak laguntzen badeutso, arratiar hirukote abenturazalearen lekuko bizi dan bakarra— be. Ez dira faltako Arratiako udaletako eta mankomunitateko ordezkariak ezta arratiar historiazale, solidaritzazaleak, Frantzisko, Eusebio eta Maximo gogoratu eta omentzeko.

### Eleizbarruti baten lehen misinoa

64 urte beteko dira Arratiak eta arratiarrek Los Rios (Ekuador) probintziagaz harreman estu eta berezia hasi ebenetik. 1948. urtean Pio XII.a Aita Santuak baimena emon eutson Gasteizko eleizbarrutiari —sasoi haretan Donostia eta Bilbo be bere parte ziran— misinoa zabaltzeko Los Riosen. Ordura arte misiolari bakarrak orden erlijiosoetako fraileak ziran. Aita Santuaren aginduak jarraituz, Carmelo Ballester Gasteizko gotzainak honako abade zortzikotea bidali eban Los Riosera: Elias Zuloaga, Leandro Zaloña, Gregorio Alonso, Luis Alberdi, Bitor Garaigordobil, Frantzisko Arraibi, Eusebio Ozerinjauregi eta Maximo Gisasola.



*Bitor Garaigordobil, Eusebio Ozerinjauregi,  
Maximo Gisasola eta Frantsizko Arraibi*

Zortzi horreen artean lau bizkaitarrak ziran, eta hiru arratiarrak: Bitor Garaigordobil (Abadiño), Frantzisko Arraibi (Lemoa), Eusebio Ozerinjauregi (Zeanuri) eta Maximo Gisasola (Zeanuri). Orduan idatzi eben Arratia bailarako historiaren orrialde solidario ederra arratiar

prestu honeek, fedearen eta abenturaren tintaz idatzia be. Orrialde hori batu, balioestu eta zabaldu gura dau Arratiako Eleizak *Arratia-Palenuque.* Alkartasun zubiak eregiten erakusketeagaz, eta horretarako Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa eta Arratiako mankomunitatearen eta udalen laguntza izan ditu.

## Erakusketea

Argazki, mapa eta testuen bitartez, misinoaren historia eta baita gaur egun lurralde haretan egiten dabilzan lana be batzen da erakusketan. Javier Lacalle *Laka* zornotzar artistak erakusketa iragartzeko diseinatu dauan kartelean islatzen dan lez, Gorbeiaiko gurutzeta eta Los Riosko mapa alkar besarkatzen dira alkartasun zubiak eregiz, hirurogei urtetik gora Arratiako herriaren eta Ekuadorreko kostaldeko herri montubioaren arteko bizia, ametsak eta fedea komunikatuz. Nazioarteko alkartasunak irribarrea sortzen dau Palenqueko umeen aurpegietan, eta kartelaren behealdean euren agurra eskaintzen dabe Bizkaiko lau abade misiolariak.

Erakusketearen beste sail batean, gaur egun lankidetzan, garapenean eta askapenean egiten dabilzan lana erakusten da, adibide lez, sasoi haretan Vineseko parte eta gaur egun udal edo kantoi dan Palenqueko errealitatea aurkeztuz: nekazal kooperatiba, emakumearen lana, osasuna, herri kultura, heziketa...

Ez dira ahazten munduko txoko ezberdinetako misinoetan lanean dabilzan arratiarrak be:

Juanita Agirre eta Maribel Egiluz Igorreko mojak, bata Perun, Congon bestea; Bediako Conchita Basaguren, Venezuelan; Zeanuriko Joan Etxebarria Bogotan (Kolonbia); Dimako Maria Luisa Artabe eta Felipe Bustinza, Kolonbian eta Madagaskarren, eta Javi Pertika Txilen edo Blas Esparta Argentinan...

Azken atala gaur egun Arratian misinoen alde egiten diran hainbat ekintza azaltzen dira: Igorreko tonbola solidarioa gabonetan, Santa Agade eguneko diru batzeak, Caritas Arratiak jairik jai, herririk herri antolatzen dituan Bidezko Merkataritzako postuak edo etxerik etxe hiruhilabete behin Arratian zabaltzen diran Los Rios izeneko aldizkariaren 400 aletik gora.

Erakusketearen inguruan beste ekintza batzuk antolatu dira, adibidez, "Kiniela misiolaria", aurkeztutakoari buruzko galdera errazez osatua, parte-hartzaileari Bidezko Merkataritzako produktuz osaturiko otzarak irabazteko aukerea emango deutsona, hau guzti hau Arratiako Caritasek lagunduta.

Gaian sakondu nahi izanez gero, eskura izango da *Palenque bertatik* liburutxoa eta [www.arratia.tk](http://www.arratia.tk) web gunean erakusketaren informazio eguneratua izango da.



*Aita Manuel Sesma, azken urteotan sortu dan ospitalea*



*Erakusketa iragartzeko kartela*